

begira



37. zk.
2016ko uztaila

ULMA

ULMA Gara, aterki
beraren azpiko
proiektu komuna

ULMA Taldeko
bestelako talentuak

ULMA,
urruntasunetik





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
ULMA Orga Jasotzaileak:
Soluzio teknologiko berriak makineria
eta ekipo ondasunentzako **BIEMHen**



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
Aukera amaigabeak
proiektu
arkitektoniko bat
pertsonalizatzeko



ULMA TALDEKO BESTELAKO TALENTUAK <
Amaia Ugarte:
Begirada besteengan jarrita



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA
Banque de France: **Eurosistemako**
lehen banku sistema logistiko
automatizatua



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA
ULMA Conveyor Components:
Peruko Las Bambas hornitzeko
kontratua



2016ko uztaila

4 **albisteak eta gaurkotasuna**
ULMA KOMPAQDRAIN®
kanal trinkoa.

ULMAk aplikazio iraultzailea
aurkeztu du bere FLOW-VAC®
ekipamenduetarako.

ULMA Orga Jasotzaileak LUBMAT
2016 Kongresuan partaide.

LOTU bridaren aurkezpena.

16 **albiste osasungarriak**
ERABATEKO OSASUNA,
ikuspegi berria enpresarentzat.

18 **ULMA Taldeko**
bestelako talentuak
Amaia Ugarte eta Jon Jiménez.

20 **erreportajea**
Begira OnLine, ULMAren azken
orduko albisteak webgunean eta
zure smartphonean.

22 **erreportajea**
ULMA, urruntasunetik.

24 **ULMA Fundazioa**
Sahararako eskola materialaren
bilketa solidarioa: 2.000 kilo eta
242 motxila bildu ditugu!!!

26 **agenda eta iradokizunak**



EDIZIOA:
Grupo ULMA
Garagaltza auzoa 51
20560 OÑATI
Tel.: 943 25 03 00
ZUZENDARITZA:
Carlos Sarabia
csarabia@ulma.com
EDITORE KONTSEILUA/ERREDAKZIOA:
Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Romu Arteché, Jesus Mari Eguiluz eta
Carlos Sarabia.
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Igone Basterra
ibasterra@ulma.com
INPRIMATEGIA:
Gertu S. L.
EUSKARAZKO ITZULPENA:
EMUN Koop. E.



Paper ekologikoa



ULMA HANDLING SYSTEMS

Banque de France: Eurosistemako lehen banku sistema logistiko automatizatua

ULMA Handling Systemsek onartu egin zion Banque de Franceri Eurosistemako banku sektoreko lehen azpiegitura automatikoa sortzeko erronka, eta emaitza Nord de France Zentro Fiduziario (CEFINOF) berriaren eskeletoa izan da.

Proiektuaren hasieran Banque de Franceren asmoa zen produkzio maila handitzea, eta hori erruz gainditu da. ULMAk integratutako teknologiarik esker, billeteak eta txanponak jaso, garraiatu, biltegitatu eta ateratzeko beharrak asetzen ditu, baita eskariak prestatzeko zerbitzuak ere, Frantzia iparraldeko bankuetarako.

Prozesu nagusia egunero erabilitako billeteak eta billete berriak jasotzea da, txanpon poltsekin batera, ondoren sailkatu, tratatu eta biltegitatzeko, eskari berri batean bidali arte. 300 milioi billete baino gehiago analizatuko dira automatikoki instalazioetan, tratamendu eta triajerako 3 makinei esker; bertan erabakiko da zein billetek jarraitzen duten martxan eta zein suntsituko diren.

ULMA Handling Systems Frantziako zuzendari Julian Garmendiak prozesua azaltzen du: *"Billete eta txanpon berrien kuxak zuzenean biltegitatzen dira, eta erabilitako billeteak garraio sistemaren bitartez bidaltzen dira segurtasun gune batera, egiaztatzeko eta sailkatzeko. Bertan, sistemak baztertu egiten ditu faltsuak direnak edo hondatuta daudenak, eta egoera onean daudenak sorta berriak egiteko erabiliko dira, eta automatikoki paketatuko dira".* Bankuen diru kopuru berri bat eskatzen dutenean, sistemak eskaria prestatzen du bidaltzeko.

"Prozesua automatizatuta produktibitatea hobetzea espero dugu, tratamendu katearen hainbat etapatan lan desatseginak kentzea eta gure bezeroei zerbitzurako eskaintza hobea egitea", nabarmendu du Banque de Franceko gobernadore François Villeroy De Galhauk CEFINOFen inaugurazioan.

ULMA CONSTRUCTION

Showrooma, ULMA Constructionen azken berritasunak aurkezteko gune egokia

Ekitaldi jendetsuak egin beharrean, ULMA Construction konbentziturik dago bezeroari hurbilagoko eta pertsonalizatuago izango den arreta eskaini behar zaiola. Horregatik berriki eguneratu den Showroomera eraman dira produktuen berritasun guztiak, bezeroek markako produktu guztiak ikusi, ukitu eta probatzeko aukera eduki dezaten.

Zentzu horretan, bisitariak bertan dituen sistemen katalogo eguneratu eta zabaleko produktuekin interakzioan aritzea bultzatu



da. Erakusketak garbi agertzen ditu ULMA Constructionek proiektu handiei aurre egiteko duen gaitasuna, sistema guztietan segurtasuna bermatzeko duen konpromiso sendoa eta bezeroarenganako konpromisoan eta orientazioan oinarritzen den etengabeko berrikuntza.

Bisitari ugari izan dira dagoeneko 1.700m² dituen gunean, eta ULMA Constructioneko bezeroek nahiz langileek prestakuntza ekintzak jaso ditzaten erabiliko da, produktu,

soluzio eta muntaketa prozesu bakoitzari buruzko ezagutza handitzeko.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Hornidura kontratua Alemaniako Vattenfallekin



Vattenfall Europako talde energetikorik handienetakoa da, Suediako gobernuaren jabetzakoa, eta operazioak egiten ditu Eskandinavia, Alemania, Holanda, Frantzia eta Erresuma Batuan. Vattenfall Alemaniaren ekoizpenaren %87 inguru erregai fosiletatik dator, eta batik bat konpainiaren jabetzakoa diren lignito meategietatik erauzten dira (Jänschwalde, Nochten eta Welzow).

2014an lortutako homologazioaren ondoren, ULMA Conveyor Componentsek kontratua lortu zuen Alemaniako Vattenfall talde energetikoaren meatze eta zentral termikoak arrabolez hornitzeko, 5 urteko iraupenarekin.

Bezero alemaniarrak eskatzen duen produktua oso esijentea da ekoizpenari eta ezaugarri teknikoek dagokienez, arrabolek dinamikoki orekatutakoak izan behar baitute, soinu maila txikiak eta masa kontrolatutakoak.

Horniketaren lehen urtea bete ostean, Vattenfallek hitzartutako akordioak aldatzea erabaki du eta arrabolak eta girlandak hornitzeko beste lehiaketa bat deitzea, iraupena 30 hilabetekoa izanik.

Azken lehiaketaren emaitza alde, ULMA Conveyor Componentsek esleipenaren bolumena handitu du eta, ondorioz, arrabola eta girlanda kopuru handiagoa hornitu beharko du.

Esleipen honi esker, ULMA Conveyor Componentsek pausu bat gehiago eman du Exijentzia Handiko eta Prestazio Altuetako arrabolen hornitzaile gisa, eta jauzi kualitatibo garrantzitsua lortu du Otxandioko instalazioetan ekotzitako produktu sortaren osaketan.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA KOMPAQDRAIN® kanal trinkoa

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSEK KOMPAQDRAIN® AURKEZTU DU, DRAINATZE KANAL TRINKO BERRI ETA BERRITZAILEA, MAX FLOW® SISTEMAREKIN.

KOMPAQDRAIN® polimero hormigoian egindako kanal trinko berria da, eta F900 karga motaraino erabil daiteke, EN-1433 arauaren arabera. ULMA Architectural Solutionsek – drainatze sistemetan espezialista da – berriaz diseinatu du zirkulazio intentsitate handiko guneetarako.

Autobideek, aireportuek, zerbitzu-guneek eta mugimendu handiko beste gune batzuek drainatze handia eta segurtasun erabatekoa eskatzen dute, eta eskakizun horiek betetzen ditu KOMPAQDRAIN®-ek, hainbat ezaugarri biltzen baititu merkatuan bakarra egiten dutenak:

- **Trinkoa da,** pieza bakarraz osatua: kanalak eta saretak multzo banaezina osatzen dute, zurruntasun eta segurtasun handiagoa bermatuz eta osagaien banatze arriskutsuak saihestuz. Trinko izate horrek gutxitu egiten ditu beharrezko mantentze lanak eta, era berean, instalazioa azkarrago egitea dakar, kostuak nabarmen murriztuta.
- **Erabat polimero hormigoian egina** dago, korrosioaren aurkako materiala da eta silize eta kuartzozko agregakinen aukerako konbinazio batez osatua dago. Agregakinok polister erretxina egonkorren bidez lotuta daude. Kompaqdrain®-ek iraunkortasun handia eta erresistentzia bikaina eskaintzen ditu.
- **Max Flow® sistema abangoardistak,** ebakidura V eran duela,



kanalari drainatze eta autogarbitzeko gaitasun handiagoa ematen dio, uraren sarrerako abiadura handituz. Horregatik, Kompaqdrain®-ek ur bolumen berbera drainatu dezake tamainaz ohikoa baino txikiagoa den kanal batekin.

- **KOMPAQDRAIN®-en** azalera, **diseinu irristagaitzarekin, zulo bideratzaileak** ditu, ur hartzea optimizatzeko eta bere erortze energia baliatzeko, kanal barruan dagoenean abiadura moteltzea baztertu eta drainatzeko gaitasuna handituz.
- **KOMPAQDRAIN®** kanalaren sarrerako zuloen diseinu originalak bere beheko aldean zabalgu progresiboa du, hondakinak metatu ez daitezten. Ezaugarri horrek, ura sartzeko abiadura handitzearekin batera, autogarbitzeta eraginkorra ziurtatzen du.

KOMPAQDRAIN®-ek EN-1433 arauaren eskakizun guztiak betetzen ditu (kalitate eta fidagarritasun nazioarteko estandarra).

Bideoa ULMAren webgunean ikus daiteke, bideoen atalean (<http://www.ulmaarchitectural.com/eu/bideoak/>) eta baita **ULMA Architectural Solutionsen** YouTube kanalean ere.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK Soluzio teknologiko berriak makineria eta ekipo ondasunentzako BIEMHen

BIENALAK ULMA ORGA JASOTZAILEEN PROIEKTUA ERAKUTSI DU, IK4-TEKNIKEREKIN BATERA GARATUTAKOIA

BIEMHen 29. Edizioan, 4.0 Industriaren eta mantentze lan prebentiboaren esparruan, IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak flotak kudeatzeko soluzio logistiko integrala aurkeztu zuen, ULMA Orga Jasotzaileen ingeniari taldearekin elkarlanean garatutakoa. Soluzioak orgen erabilera, mantentze lanak eta bitzita baliagarria hobetzeko funtsezko parametroak urrutitik monitorizatzea ahalbidetzen du.

Era berean, sistemak ahalbidetzen du praktikan jartzea akatsak aurretiaz detektatzeko sistemak, geldiuneak planifikatzekoak, ekipoen



bitzita erabilgarria luzatzea, bere erabilgarritasuna hobetzea, eta bai konpontze edo mantentze nahiz ustiatze kostuak errotik murriztea.

Ekitaldia indarrez itzuli da eta aurreikuspenak aise gainditu ditu

Aurtengo ekitaldia, maiatzaren 30etik ekainaren bitartean egin dena, azken urteotako ekitaldi onena izan da, eta IK4-TEKNIKERekin batera hainbat izan dira BIEMHen parte hartu duten fabrikatzaile, inportatzaile, banatzaile eta erosleak, hogeita hamarren bat herrialdeetako garrantzitsuenak, hain zuzen ere.



ULMA PACKAGING

ULMAk aplikazio iraultzailea aurkeztu du bere FLOW-VAC® ekipamenduetarako

Patentatzeko zain dagoen teknologia bidez, huts kanpaia alde bietatik automatikoki elikatze sistema erraz eta irudimentsua garatu du ULMAk. Ontziak mutur batean bakarrik zigilatzen dira, eta automatikoki kanpai aurreko buffer zintara transferitzeko prestatzen dira, zigilatze barrei begira muturra zabalik dutela.

90 gradutara transferitzeko sistemak poltsak pareka jartzen ditu bufferrantz, huts kanpaiko bi barra zigilatzaileak batera erabiltzeko aukera egon dadin. Produktua ez bada parean jartzeko bezain txikia

sistemak automatikoki antzemango du eta bakarka kargatuko du.

Sistema automatiko honek produktibitatea handitzen du eta produkzio

kostuak murrizten ditu. Bereziki haragi eta gazta industriari zuzenduta dago.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS LDRAk eta ULMA Embedded Solutionsek elkarren arteko hitzarmena iragarri dute



LDRak, batetik, sistemak garatzeko fase goiztiarretan akatsak identifikatzeko tresnak garatu eta merkaturatzen ditu, eta, bestetik, safety eta mission-critical aplikazioak erregulatzeko dituzten araudiak eta estandarrak betetzen ditu, softwareak, kode analisiak eta testak automatikoki egiaztatuz.

ULMA Embedded Solutionsek aplikazio kritikoetarako sistemak garatzen ditu eta, horretarako, aplikaziook hainbat arlotako araudiak bete beharra dute (trenbide, osasun, automobilgintza, energia...). LDRaren tresnek sistema osoak, fidagarriak eta kalitate handikoak garatzea ahalbidetzen dute, denbora eta akatsak saihestuta.

ULMA Embedded Solutionsek, tresna horien erabiltzaile izan eta LDRaren teknologia puntakoena izateaz gain, estatu mailan laguntza emateko ardurak izango du. Hori horrela, LDRak merkatu berriari helduko dio, ULMA Embedded Solutionsek duen esperientzia eta presentzia lagun.



ULMA PIPING

ULMA Piping 2016ko TUBE&WIRE azokan egon da, Düsseldorf

ULMA Piping sektorearen azoka nagusian egon da apirilko lehen astean. TUBE&WIRE azoka bi urtean behin egiten da Alemaniako Düsseldorf hirian.

Altzairuan sektorea munduan krisi betean dagoelarik, aurreko edizioetan baino euforia gutxiago hautematen zen.

Halere, 2.600 enpresa inguruk erakutsi dituzte beren produktuak, nobedadeak eta balioak, 110.900 metro koadrotan. 130 herrialde baino gehiagotako 69.500 bisitarik paseatu dute azokako 16 aretoetan zehar.

Bost egunak bizi-bizi joan dira eta ULMAko langileak, zuzendaritzatik hasi eta merkataritza nahiz erosketa departamentuetatik pasatuz, hortxe izan dira, jo eta su, ULMA Piping brida, osagarri forjatu eta gainerako "piping" produktuen fabrikatzaileen artean liderra eta erreferentea izatea

eragin duten azken nobedadeak aurkezten eta balioak indartzen. Batez ere azken urteotako ibilbidea eta proiektuak munduan lortu duen finkapena azpimarratu da.

Erakusketako 50 metro koadrotan, negozioan landutako azken erroreak erakutsi ditugu, eta bezeroekin partekatu. Alberto Iñurrategi alpinistaren argazkia irudizat hartuta, helburua munduari ULMA Piping lan egiteko era erakustea izan da. Talde lana, konpromisoa, fidagarritasuna eta sakrifizioa bezalako balioak izan dira ULMAren oinarriko mezuak, betiere giza faktorea nabarmenduz arrakastarako tresna nagusi gisa.

Guztia ala guztia jai gastronomiko-kultural baten barruan, horri esker euskal kultura Alemaniako hirira hurbildu ahal izan baita. Bezeroek eskertu eta bete-betean disfrutatzen duten aparteko puntu bat.



ULMA TALDEA

ULMA presente Deustuko Enplegu Foroan

DEUSTUKO ENPLEGU FOROA, APIRILAK 20 ETA 21

ULMA Taldea eta ULMA Handling Systems presente egon gara Deustuko XII. Enplegu Foroan. Bertan bi eguneko egonaldia izan dugu, standean profesional berriak izango direnak atenditzen, baina baita ULMAko aurkezpen bat egiten eta hautaketa prozesuetako elkarriketak ere egiten.

Esperientzia oso aberasgarria izan da, bertan hainbat eta hainbat CV jaso ditugu, eta oso baliagarri izango zaizkigun kontaktuak ere egin ditugu.



ULMA PACKAGING

Bisitari ugari joan den IFFA azokan

IFFA azokaren azken edizioa Frankfurtan egin zen maiatzaren 7tik 12ra, eta lehen mailako erakuslehoia izan zen ULMA Packagingentzat, haragia ontziratzeko espezialitatean mundu mailako erreferentzia dela erakutsi baitzuen.

ULMA Packagingek ULMA Inoxtrucken ondoan jarri zuen bere standa, eta 8 instalazio erakutsi zituen

haragiaren sektorerazuzenduta, zeinak hiru urtean behin egiten duen nazioarteko azokarik garrantzitsuenak. Bi standen artean 600 m² okupatu zuten, eta oso itxura nabarmena eman zuten 11. halletik igarotzen ziren bisitarien aurrean.

Bisitariak interes handia erakutsi zuten jarritako instalazioei buruz, baina bezeroen interesik eta arretarik

handiena piztu zuena FV 35 SD FLOW-VAC® izan zen, transferentzi sistemarekin eta hutseko kanpaiarekin.

Laburbilduta, bisitarien kopurua %27 hazi zen aurreko edizioarekiko, eta, bisitari horien kalitateak utzitako sententzio onari helduta, datozen hilabeteetan fruituak emango dituelako konbentziturata gaude.

ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola Ekialde Ertainean

Ekialde Ertaineko baldintza klimatikoek ondorioz bertako merkaturak oso zorrotza da berotegiaren sektoreari dagokionez, eta instalazio produktiboetarako soluzioen eskaerak teknifikazio eta ekipamendu maila altua planteatzen dute.

Maiatzaren amaieran, ULMA Agricola, nazioartekotzeko eta lidergo indartzeko estrategiaren parte moduan, eskualdean egin diren azokarik garrantzitsuenetako bitan izan da.

Iran Agoren 23. edizioa Teheranen

ULMA Agricola aurreko aldi batzuetan ere egonda zegoen Iran Agro azokan, eta erakusle moduan bere presentzia mantentzen du, aurreko edizioetan emaitza onak lortu dituelako eta herrialdeko nekazaritzako industriaren azoka nagusia delako. Aurten, azokan 11 herrialdeetatik joandako 99 erakusle egon dira, eta 40.000 bisitari hurbildu dira.



Agrominotech Azoka – Uzbekistan. 2016-05-31-2016-06-03

Horrez gain, aurten ULMA Agricola lehenengoz izan da Agrominotech azokan, Tashkenten, Uzbekistanen. Topaketa Uzbekistango Kanpo Ekonomia, Harreman, Inbertsio eta Merkataritzako Ministerioak antolatzen du eta, horrenbestez, gobernuaren erabateko babesak dauka. 30 herrialdeetatik 220 enpresa izan dira bertan, eta 30.000 bisitari baino gehiago, enpresa txikiak, nekazaritzako konpainiak eta granjak ordezkatuz.

Bertan, ULMA Agricolak aukera izan du bere soluzio eta zerbitzuen eskaintza

zabala aurkezteko, eta horrelako proiektuei profesionaltasunez erantzuteko duen esperientzia ere erakutsi du.



ULMA HANDLING SYSTEMS

Miguel Angel Mendiola: Produktibitatea hobetzeko gida praktikoa



Ingurunearen behatzaile hutsa izatetik urrun, ULMA Handling Systemseko Project Managerra den Miguel Angel Mendiolak denbora baliotsua bilatzen du bere agendan praktika onen gida bat prestatzeko, bazkide eta langile guztiei laneko produktibitatearen aldeko praktika onak azaltzeko.

Lanpostuko efizientzia ULMA Handling Systemsen erronka nagusietakoa da. Baliabideak optimizatzea, lanak hobeto planifikatzea, bilera eraginkorrak antolatzea edo lan giro egokia sortzea dira alderdi horri buruzko behar nagusiak.

Ildo horretan, Miguel Angel Mendiolak sortu duen dokumentua guztiz bat dator ULMAren helburuarekin, negozio eredu efizientea, errentagarria eta motibatzailea sortzeko.

“Dokumentua idazteko arrazoia produktiboagoa izateko modua aktiboki bilatzea, efizientziaz lan egiteko, gehiago emanez. Hitzaldi eta irakurketetako bizipenen eta behaketaren beraren laburpena da. Edonola ere, uste dut gauza onak, ez badituzu partekatzen, jada ez direla onak, eta hori izan da dokumentu hau orain denona izateko helburua”, azaldu du Miguel Angelek.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Orga Jasotzaileak LUBMAT 2016 Kongresuan partaidea



ANGEL SANCHEZ, GERENTEA ETA ASIER AGIRREGOMEZKORTA, PRODUKTU ZUZENDARIA HIZLARI ARITU ZIREN.



“How smart connected products can drive new businesses” izenburupean eta hitzaldi sorta ugari batean partaidea izanik, Angel Sanchezek eta Asier Agirregomezkortak ULMA Orga Jasotzaileen negozio ereduaren eraldaketaren kasua aurkeztu zuten.

Mantentze lana funtsezko faktorea da, 4.0 Industriaren barruan, soluzio teknologiko ugari eskaintzen dituzten aukera berriak

aldatzeko eta negozio egiteko era berria asmatzeko, enpresak eraldatuz eta errentagarriago, eskalagarriago eta lehiakorrago eginez. Industri prozesuetatik datozen datuen bilketaren eta ondorengo analisiaren inguruan garatzen da Industria 4.0 edo, beste modu batera esanda, industriako fabrikaziorako testuinguru berria, zeinak ekoizpen inguruneetan informazioaren teknologia aurreratuek eta komunikazioak erabiltzea baitu oinarri.

ULMA Orga Jasotzaileen erronka izan da makinak hornitzen dituen enpresa eraldatzea eta industriako testuinguru berriarekin bat datorren negozio eredu berri lehiakorrago bihurtzea.

LUBMAT 2016 nazioarteko kongresuaren 5. edizioa da aurtengoa, Erresuma Batuko Jost Institute for Tribotechnology-ren eta IK4-TEKNIKER-en arteko lankidetzak hitzarmenetik sortua eta progresiboki europako funtsezko ekitaldi bihurtu da, sektore honetako industriak produktuen eta zerbitzuen azken aurrerapenak partekatu dituzten.

Edizio honetan, mundu osotik etorritako 300 profesional baino gehiago egon dira, lubrifikatuen industriako sektorekoak, tribologiakoak eta mantentze lan aurreratuetakoak.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Aukera amaigabeak proiektu arkitektoniko bat pertsonalizatzeko


BIDEO BERRIA ULMA CREAKTIVE FATXADA AIREZTATUEN GAMARI BURUZ

ULMA Architectural Solutionsek bere **bideo berria atera berri du, fatxada aireztatuen Creaktive gamaren aukera amaigabeak erakusteko**. Bere gamarik moldagarri eta sortzaileena da, arkitektoei aukera zabala eskaintzen diena proiektuak sortzeko eta pertsonalizatzeko.

Zehazki, ikus. entzunezko pieza honek **"Sant Pere Mulanta" eskolaren proiekturako** egin zen talde lana erakusten du, **Gustau Gili** eta ULMAko talde teknikoaren eskutik. Giliek industria fabrikatzailearen eta arkitektoaren arteko lankidetzaz nabarmetzen du, horrelako proiektu pertsonalizatuak egin ahal izateko. *"Proiektuaren egilearen eta industriaren arteko konplizitatea ez da oso gauza arrunta, eta uste dut funtsezkoa dela*

bi alderdientzat; horixe aurkitu nuen ULMAn".

Proiekturako **mahats hosto baten irudia simulatzen duen testura berezi** bat garatu da, eta kolore berezia ere eman zaio.



Polimero hormigoia erabiltzen duen moldagarritasunak, eta ULMAko talde teknikoaren 25 urte baino gehiagoko esperien-



tzia eta know-howak, aukera ematen die proiektu egileei euren irudimena askatzeko eta proiektuei ukitu pertsonala emateko.

Prozesua azaltzeko egindako lanen adibideak erakustea baino ezer hobirik ez, zeinetan ULMAren eta proiektuaren egileen arteko talde lanaren emaitza ikusten den: **pertsonalizatzeko aukera amaigabeak** dituen eta neurria eginda dagoen fatxadaren diseinu bat.

Creaktive gama ez dira soilik plakak, **sormena** da, **ezagutza teknikoa, pertsonalizazioa** eta, batez ere, **talde lana**.

ULMAren webgunean ikus daiteke, bideoen atalean (<http://www.ulmaarchitectural.com/es/videos/>), baita ULMA Architecturalen YouTube kanalean ere.

ULMA PIPING

Martxoko hitzaldi informatiboetako saioak ULMA Piping

Urtero ohi dugun moduan, aurtengo urte hasiera honetan ere hitzaldi informatiboak izan genituen ULMA Pipingean.

Oñatin, martxoaren 10ean, osteguna, goiz eta arratsaldeko bi saioetan bilduta izan ginen ULMA Taldeko departamentu zentraletako batzar aretoan.

Aurten, 2016-2020 Plan Estrategikoko berriaren lehen aurkezpena egin genion bertan gure lan talde osoari.

Horretaz gain, 2015eko ekitaldi itxieraren datu nagusienak aipatu genituen eta, batik batik 2016ko ekitaldia nola hasi dugun, kartera eta lan karga egoera eta mahai gainean pil-pilean ditugun gaiak.

Hurrengo egunean, martxoaren 11n, ostirala, Lazkaoko Forjan izan genuen hirugarren eta azken hitzaldi informatiboaren ekitaldia. Hemen alboan jartzen dizuegu

ikusgai egun hartako argazki bat testigantza moduan.

Hemen ere, ohikoak ditugun 2015eko ekitaldi itxiera eta 2016ko urte hasierako lan egoerak aipatu genituen.

Horretaz aparte, 2016ko urte honetarako dauzkagun erronkarik nagusienak, inbertsioak, prozesu hobetzeak eta abar.

Bereziki hitzarmen berriaren adostasunaren berri eman genuen, zeinaren bidez 2018ko urtera arte sinatuta uzten dugun lan baldintzen akordioa.

Izan ziren gai ordenetako puntuez gain ondoren iritzi trukaketan eta egindako galde-erantzunetan irten ziren puntu interesgarri asko ere.

Guztiak dira kontuan hartzekoak eta ziur erronkaz betetako 2016. urte honetan



lagungarri izango zaizkigula.

Hemendik eskertu bileretan parte hartu duzuen guztioi.

Gure proiektuaren (gure proiektuen) noranzkoak ondo ulertzetik abiatuta errazago egingo zaigu ondoren etorriko zaizkigun jardunen zailtasunak eta laztasunak gaitzetzeko eta aurrera ateratzeko.

Urtetik urtera, pixkanaka bada ere, parte hartzean gehiagora goaz, eta aurten bereziki interesgarri joan diren sentsazioarekin gelditu gara bertaratu garen guztiok.

Hurrengo urte, denoi!



ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruck, ULMA Packagingen luxuzko gonbidatua IFFA azokan

Bi enpreson arteko harreman komertziala ona denez, eta osagarritasuna dagoenez ULMA Inoxtrucken bobinak manipulatzen laguntzaileak eta ULMA Packagingen ontziratzeko lineen artean, haien gonbita baliatu genuen elkarrekin erakustokian egoteko. IFFA azoka

Frankfurten egin da eta mundu mailan garrantzitsua da harakintza sektorerako.

luzko azokan geuk bakarrik parte hartu genuen eta ezagutzen genuen duen potentziala. Baina, aurtengoan, hedatu genituen taldeei eta azokarako diseinatutako erakusleho zoragarriari esker,

bisita ugari izan genuen, bai zuzenean, gure banatzaileen eskutik, bai ULMA Packagingeko talde komertzialaren bidez.

Eskerrak eman nahi ditugu izan dugun aukeragatik eta jasotako laguntza guztiagatik. Ziur gaude geroztik ULMA marka sendoxeagoa dela.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Kolonbiako Argos Zementu-erakundearen proiektua

Alemaniar ingeniariak ULMA Conveyor Componentsi esleitu dio arrabolen eta euskarrien hornidura kontratua, Kolonbian Argos Zementu-erakundearen planta zabaltzeko. Lantegia Sogamoso herrian dago, Bogota hiriburutik 200 km ipar-mendebaldera, Boyaca probintzian, eta kokapen estrategikoa da herrialde erdialdeko merkatuari erantzuteko, bertan zementuaren eskariaren %70 inguru kontzentratzen delarik.

Planta egunean 4.300 t ekoizteko diseinatu da. Inbertsioa guztira 450 m USD da, eta espero da 2017ko amaieran operatibo egotea. Instalazio berriak eraginkorragoak dira, eta tonako 195 dolarreko kostua dute. Herrialdeko plantarik moderno eta eraginkorrena izango da, bere kokapenagatik, Argos Sogamoson lehenagotik zituen azpiegiturak aprobetxatuko



direlako eta hainbat teknologia inplementatuko direlako, ikatza eta antzeko erregaiak erabili beharrean biomasak eta hondakinak erabiltzeko (erabilitako gurrupilak, plastikoa, arroz azalak).

Ulma Conveyorrek arrabol berezi batzuk garatu ditu tenperatura altuekiko erresistenteak diren gomekin (120°C), labe irteerako garraiatzaileetarako.

Zementuaren negozioan Argos liderra da Kolonbian,

bosgarren ekoizlerik handiena da Latinoamerikan, eta bigarren handiena Estatu Batuetako hego-ekialdean. Bederatzi planta ditu Kolonbian, Estatu Batuetan hiru eta Hondurasen bat; hamar clinker errota, Kolonbia, Estatu Batu, Haiti, Panama, Dominikar Errepublika, Honduras, Guyana Frantsesa eta Surinam; eta harrera eta paketatze hobeita lau portu eta terminal. Guztira instalatutako ahalmena urtean 21 milioi tonakoa da.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsen azal berria

ULMA ASren lantegia 2001ean inauguratu zen eta ordutik 15 urte pasa dira jada. Kooperatibaren 25. urteurrenaren barruan (1990-2015) antolatutako mugarren artean fatxada berritzeko proiektuari ekitea erabaki zen. Horretarako, diziplina anitzeko talde bat sortu zen, ondoko bi premisak betetzeko ardurarekin: proiektuaren muinari eustea, batetik, eta, joera arkitektoniko berrietara eta fatxada aireztatuen lineako garapen berrietara egokitzea, bestetik. Garapenaren erantzukizuna barruko langileena izatea ere erabaki zen, eta **Jaione Vazquez**, fatxadetako talde teknikoko arkitektoa, izendatu zuten inguratzaile berria proiektatzeko arduradun.



JATORRIZKO ERAIKINA

Egin zenean, eraikin berritzailea izan zen, garairako diseinu gaurkotu eta modernoaz, eraikinaren "horizontaltasuna" eta errezel horma protagonista zituela.

TESTURA ORGANIKOETAN INSPIRATUTAKO PROPOSAMEN BERRIA

Zein zen eguneratze/berritatzeko horrekin lortu nahi zen helburua?

Lehen asmoa zen fatxada berri honetan sentsazio organikoagoa transmititzea, aukeratutako testura, forma eta koloreen bitartez eta, gainera, eguneratzea, bai egungo une arkitektonikora bai gure polimero hormigoiak eskaintzen dituen aukeretara. Urte hauetan guztietan gure materiala garatzen eta hobetzen joan gara, eta material horrek pertsonalizatzeko eskaintzen dituen aukerak nabarmendu nahi izan dira. Bestalde, sarrerako modulua ere nabarmendu nahi genuen, eta baita zeuden hutsuneen bolumenta ere, beltz grafitoan markoztatuta. ULMA logoak ere protagonismo handiagoa hartu beharko zuen.

Sareta bat jarri da, fatxada guztiaren sormen elementu eta protagonista, argia iragazten laguntzeko eta eguzki erradiazioetik babesteko, eta fatxadari estetika oso abangoardista emateko. Horrez gain, hobetu egin dugu inguratzaile termikoa, isolatzaile termiko gehigarria jarritz, eta horrela lortzen da energi aurrezpen garrantzitsua eta konforta nabarmen handitzea ere.

Aukeratutako testurak ondoko biak izan dira: "paper" testura, kolore argian eta kotoi organikoa simulatuz; eta "lixa" testura (beltz ikatza) gune nagusirako. Saretaren diseinua bat dator paper testurarekin, gaueko argiekin nabarmen den banbu saila irudikatuta.

Jarraian dituzue aldaketak eragin dituen zenbait iritzi:

ULMA Architectural Solutionseko bazkideen iritzia:

Egin beharreko aldaketa zen eta gure 25. urteurrena baliatu dugu hori gauzatzeko. Itxura aldaketa estetikoak bada ere, neurri berean da gure enpresa hasiera-hasieratik jarraitzen ari den etengabeko bilakaeraren isla leiala. Eta, hori, hein batean, Ulma Architectural Solutions osatzen dugun pertsonen ahalegin eta inplikazioaren emaitza da. Itxura aldaketa, era berean, aire freskoa dakarren seinalea da eta agerian uzten du partekatzen dugun proiektuari optimismoa eta ilusioa eransten dion mezua.

Unai Arregi: ULMA Architectural Solutionsen lehendakaria.

Arkitektoen iritzia:

ULMA Architectural Solutions lantegiko fatxada berriak argi uzten du ULMA produktuen sortatik kolore, formatu eta testura egokiak aukeratzeak proiektu arkitektoniko baten oinarritzko bi alderdi ziurtatzen dituela: Dotoretasunaren apaltasuna eta apaltasunaren dotorezia. Testuren moldakortasunak eta sareten aukerak ahalbidetzen dute material berarekin ingurumen eta diseinuko betebeharrak desberdinei irtenbideak ematea, eguzki erradiazioaren murrizketa beharren arabera egokituz.

Jose Aguilar, agvar-Aguilar y Varona Arquitectos arkitektura estudioko arkitektoa.

ULMA HANDLING SYSTEMS

ZARA Homek konfiantza du ULMA Handling Systemsen automatizazio logistikoan



Inditex taldeko ZARA HOME firma ezagunak ULMA Handling Systemsengan jarri du konfiantza bere etxeko moda eta apaingarrietarako produktuen logistika automatizatzeko..

ZARA HOME 2003. urtean sortu zen, 53 herrialdeetan baino gehiagotan dago presente 500 dendarekin, eta beti aritu da bere eskaintza berritzen, etxerako modan azken joerak sartuz. Etengabeko berrikuntzaren aldeko apustuarekin bat eginez, ZARAK bere eredu logistikoa aldatzeko erronkari heldu dio, eta Madrilgo instalazioak automatizatzeko soluzioak eskuratu ditu ULMA Handling Systemsen eskutik.

Prozesu logistikoa harrerako gunean hasten da, sarrerako 6 posturen bitartez. Merkantzia guztia zirkuitu batean sartzeko prestatzen da; zirkuitua 15 STV osatzen dute, eta automatikoki garraiatzen dute merkantzia harrera gunetik

automatikoki biltegitratzeko guneraino, operazioetan fidagarritasuna eta azkartasuna emanez. Biltegi automatikoa 6 transjasogailuk osatzen dute, 40.000 palet baino gehiago biltegitratzeko ahalmenarekin.

Gainera, ZARAK 4 postu ditu despaletizatze ergonomikoa egiteko, lan ingurune erosoagoa eduki ahal izateko. Aldi berean, paletizatze postu bat ere badu, eta bere ezaugarriak dira laneko efizientzia eta ergonomia. Paletizatze prozesua amaitu eta gero, paletak harrera gunera bidaltzen dira, fardelak egiteko eta paletizatutako gainerako produktuekin batera jartzeko, 500 denda baino gehiagotarako eskariak eraginkortasunez prestatzeko.



ULMA PIPING

ULMA Piping FIGHT FAKE PRODUCTS egitasmoarekin bat eginda

ULMA Piping FIGHT FAKE PRODUCTS elkarteko kidea da. Egitasmoak ekoizle ospetsuak elkartzen ditu, tutu, brida eta

osagarri faltsuen aurka borrokatzeko. Orain arte 17 fabrikatzailek egin dute bat proiektuarekin, lehia desleialaren aurka elkarrekin ekintza plan bateratu bat garatzeko, horrek arriskuak eragiten baititu industriarentzat zein gizartearentzat.

Merkatu paralelo bat dago, non kalitatearen ordez produktu merkeagoa erabiltzen den. Kalitatea tea kostu baxua konbinatzeko ahaleginean, enpresa eta saltzaile askok legearen muga zeharkatzen dute, horrek dakarren guztiarekin.



ULMA CONSTRUCTION

ULMA Constructionek irudi korporatiboa eguneratu du katalogo orokor berriarekin

Construction Book izenarekin, ULMAK 250 orrialdetik gorako katalogo orokor berria aurkeztu du, bere produktuen gaineko informazio zabalarekin, tartean bere enkofratu, aldamiu eta apeo sistemen katalogo osoa dela, bai eta mundu osoan gauzatu dituen 70 proiektu garrantzitsu baino gehiagori buruzko informazioarekin ere.

Dokumentu bakarrean bildu da enpresaren gaineko informazio eguneratua eta osotua, produktu, soluzio eta aplikazioen azken nobedadeekin, berrikuntzaren aldeko apustu garbi gisa. Produktuen gaineko dokumentu sorta sendotu eta handitu egin da, soluzio guztietako sistemen segurtasunari buruzko atal berri bati arreta berezia eginez.

Construction Booken nahia da ULMA Constructionen nortasuna transmititzea eta baita bere balioak eta hurbiltasuna ere, munduan zehar ULMA Constructionek lanean diharduen herrialdeetan egunerokoan aritzen diren pertsona taldeen hitzen bitartez. Horrela, bada, Construction Book ULMA Constructionen erakusleho berria da, izan ere, sektoreko profesionalak bertan kontsultatu ditzakete produktu guztien xehetasunak eta, era berean, bertan ezagutu dezakete ULMAko lantaldeak edozein proiektu gauzatzeko duen ahalmena.

Ildo horretan, egitasmoaren helburua oso argia da: legez kanpoko ekintzen aurka borrokatu, erabiltzeko dauden bitarteko guztiekin. Bataila horretan argi utzi nahi da praktika horiek Legea urratzen dutela.



ULMA AGRICOLA

LOTU bridaren aurkezpena

ULMA Agricola bere I+G+B sailak egindako **produktu garapen berri** bat aurkezten ari da aurtengo azoketan, eta **LOTU brida** deitu dio.

Oraingoan ez da produktuaren garapen huts bat, baizik eta enpresaren filosofia berria, lan egiteko modu berri bat, zeinak bezeroarentzako produktu eta zerbitzu hobia eskaintzen duen emaitzatzat.

Elementuaren garapena hausnarketa estrategiko baten ondoren iritsi da, eta bertan produktua estandarizatzea erabaki da, baina aldi berean berotegiaren beste zati batzuetan ere aldaketak eragin ditu, aipagarrienak izanik erretenetan zein arkuetan aplikatutakoak.

ULMA Agricolako departamentuak azterketa zehatza egin du berotegiaren lotura nagusia osatzen duten pieza guztiei buruz, eta pieza bakar bat diseinatu dute, LOTU brida, altueran doitzea eta erraz muntatzea ahalbidetzen duena, multzoari moldagarritasuna eta sendotasuna emanez.

Brida berriak gaur egungo burua ordeztuko du eta, beraz, pieza nagusia bihurtuko da, erretenenen tortsioari

erresistentzia handiagoa aurkeztuz eta erretenenen, buruaren eta zutoinaren arteko loturari sendotasun handiagoa emanez. ULMA Agricolako multikapera berotegien modelo guztietan erabiliko da.

Berrikuntza handia da berotegiaren egiturarako, izan ere, produktu bakar batekin eraginkortasunez betetzen dira orain arte elementu edo erreferentzia desberdinak behar zituzten funtzioak. Horrek esan nahi du sinplifikatu egiten direla ULMA Agricolak gaur egun bere produktuen katalogoan eskaintzen dituen multikapera berotegi guztien muntatzeko prozesua zein ekoizpena eta logistika.

ULMA Agricolaren **erretenek**, aurrerantzean, profil bakarra izango dute, 500 mm-ko garapenarekin eta 1,8ko lodierarekin. Erretenetan erabiliko **ALUMAG** estalkia, duen konposizio kimikoagatik, korrosioarekiko erresistentziarik handiena eskaintzen du ingurune erasokorretan. Halaber, ezaugarrien artean ertzak autokonpontzeko babeslea ere badu, airean ebakitako ertzak zink eta magnesiozko pelikula babesgarri fin



batekin babesteko, erreakzio korrosiboak gertatzea galarazteko.

Arkuetan 90x50 mm-ko tutu obala erabiltzeak sendotasun handiagoa ematen du, itzal gutxiago eta argitasun handiagoa berotegiaren egiturari. 90x50-eko arku obalatuak **%130 inertzia gehiago** dauka, eta **%60ko erresistentzia ahalmen** handiagoa Ø60-ko tutu biribilarekin alderatuta, eta modelo guztietan multzo arku-entutoratuaren aurre-muntaketa egin ahal izateko diseinatu da.

ULMA Agricolak egitura berriaren abantailaz erakutsiko ditu 2016an zehar joaten den azoka guztietan.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Peruko Las Bambas hornitzeko kontratua

Las Bambas meategia kobre ustiategi handi bat da, MMG Meategi Taldearen jabetzakoa. Cotabambas probintzian dago, Peruko Apurimac eskualdean, eta espero da produkzioari dagokionez munduan kobreaken aktiborik handienetakoa izango dela.

7,2 milioi tona kobreako erreserbak ditu, eta 12,6 milioi tonako baliabide mineralak. Aurreikusten da lehen bost urteetan kobre kontzentratuko 2 milioi tona baino gehiago ekoiztuko direla.

Hasierako garbiketa lanak 2014ko apirilean hasi ziren, eta aurreikusita dago Las Bambaseko mineralaren meategi lanak irekitako hiru labarretan egitea: Ferrobamba,



Chalcobamba eta SulFOBamba. Une hauetan Ferrobambako produkzioaren lehen faseak egiten ari dira, Kontzentrazio Plantatik hamar kilometrorra ekialdean.

2015eko abenduan Las Bambasen arrabolak hornitzera joan ondoren, 2016ko martxoan ULMA Conveyor Componentsek arrabolen hornitzaile osoaren esleipena bereganatu zuen meategiko hiru garraiatzaile nagusietarako: 1,84"-ko (2,14 metro zabal) eta luzeran 1/2 km-ko bandako garraiatzaile bat, eta 72"-ko

bi garraiatzaile (1,83 metro zabal), bakoitza 3 km luze.

Urte batez hornitzeko kontratuaz gain, materiala meategiko biltegiaren kontsignatuta, ULMA Conveyor Componentsek konpromisoa hartu du Las Bambaseko mantentze lanetako eta planifikazioko langileei aholku emateko, garraiatzaileen funtzionamenduaren arazoak aztertuz eta irtenbideak eskainiz, makinaren efizientzia nabarmen hobetzeko eta ustiapenean zehar larrialdiko geldialdiak saihesteko.

ULMA CONSTRUCTION

ULMA Gara, aterki beraren azpiko proiektu komuna

UMA C y E, S.Coop.en Ohiko Batzar Nagusia bigarren urtez jarraian egin da **kooperatibako bazkideen parte hartzea erraztu eta bultzatzera** bideratutako formatu berriarekin. Ekimenak, Lankiko Igor Ortegaren hitzaldiaren bitartez eduki berriak eskaintzeaz gain, eragin nabarmena izan zuen espazioaren banaketan ere, harmailatan kokatutako jarlekuak murriztu baitziren, bazkideak hizlarien atrila zegoen gunera hurbilduz, aurtien ere, iaz bezala, ez baitzegoen lehendakaritzaren ohiko mahairik.

Mondragon Unibertsitateak kooperatibagintzari buruz duen ikertegia da LANKI eta bertako lankide diren Igor Ortegak eta Leire Uriartek eurek idatzitako **"Arrasateko kooperatibagintzaren erronkak eta dilemak FAGOR Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik"** liburuaren aurkezpena egin zuten batzarrean. Aurkezpen hori baliagarri izan zen batzarrean sartzerakoan bazkideei banatu zitzaizkien zenbakien bidez osatutako taldeetan ondoren eztabaidatu ziren gaietako testuingurua jartzeko. Igor Ortegak azaldu zuenez, hainbat izan ziren azterlan egitera bultzatu zituzten arrazoiak: enpresaren krisia eragin zuten gakoak ulertu

beharra, esperientzia mingarri horren bitartez ikastea eta garai historiko berriak dakartzen erronka ekonomiko, sozial eta humanoen kontzientzia hartzea.

Azalpenen ostean, bazkideei talde dinamikatan eztabaidatzeko hainbat gai proposatu zitzaizkien, "visual thinking" teknika erabilia: taldearen komunikazioa eta taldean ideiak sortzea erraztu nahi dira eta baliabide bisualak erabiltzean datza, fitxak edo termometro baten irudia esate baterako, taldean eztabaidatutako gai bakoitza ebaluatzeko eta bakoitzaren tenperatura hartzea irudikatuzko. Bazkideek sortutako ideia zaparradetan ondorengo kontzeptuak agertu ziren: parte hartzea, kultura kooperatiboa berreskuratzeko beharra autoexijentzia eta konpromiso handiagoa izango duten bazkideekin, elkartasun zorrotza, aurrez finkatutako baldintzekin, sakrifizioa baliagarria izan dadin, errentagarritasuna eta, azkenik, kooperatiba mugimenduaren bokazio eraldatzailea.

Bukaeran, protagonistak euria eta hartaz gozatzeko dugun izaera baikorra zituen bideo bat ikusi zen, eta, ondoren, aterkiak banatu ziren bertaratutako enpresaren artean. Aterkiekin **proiektu komun**

batean oinarritutako talde baten partaide izatearen indarra irudikatu nahi zen. Proiektu horrek bazkideetako bakoitza babesten du eta bere eskura jartzen ditu erronka berriei aurre egin ahal izateko mekanismoak. Batzarrean zehar, erronkak tanta handietan marraztu ziren, mahai bakoitzean sortutako ideia eta mezuekin batera. Bazkideen parte hartetik aterako diren konklusioak lagungarri izango dira aldaketa prozesu bat lantzeko eta helburu zehatzak lortzeko bidean jartzeko. Esate baterako, iazko batzarrean honako helburuak identifikatu ziren: ordezkartzen arteko hurbilketa bultzatu beharra, kooperatibako partaide izatearen zentzua areagotzea, egungoarekiko desberdina izango den komunikazio osoagoa erabiltzea eta parte hartzea handitzea.



ULMA PACKAGING

ULMAk ebakin murrizteko skin motako ontzi bat garatu du Sealed Air-ekin lankidetzan

TFS 407 R berriak filma optimizatzeko prozesua dakar, patente bidez babestua, eta skin ontzientzat eta Cryovac® Darfresh® ontzientzat gordetako eremua maximizatzeko aukera ematen du.

Garapen berriak alferrik galdutako filma minimizatzen du, eta kostuak murrizteko



aukera ematen du, eraginkortasun eta jasangarritasun gaitian begi-bistako onurekin batera.

IFFAn aurkeztu dugun TFS 407 R termoformatzailea filmaren ebakina %50 murrizteko gai da eta, ondorioz, hondakinak modu nabarmenean murrizten dira.

Ikus ezazu aplikazio honen demoa IFFA azokako ULMAren standean. - Hall 11 Level 0 Booth B70.

ERABATEKO OSASUNA, ikuspegi berria enpresarentzat

Erabateko osasunaren definizioak bi atal ditu: laneko arriskuak prebenitzeko ekintzak integratzeko estrategia, funtsean enpresak egin beharrekoa, eta osasunaren sustapena, funtsean bazkide langileak egin beharrekoa. Horren arrazoia da lanean pertsona osasuntsuak eduki behar ditugula, eta behar hori aseko da baldin eta bi jardura mota horiek aldi berean egiten badira.




ULMA Taldearen barruan, Osasuna sustatzearen arloan, osasuna sustatzeko proiektu bat lantzen hasi gara –Izan Osasuntsu–, Taldea osatzen duten pertsonen konpromisoa hartu dezagun gure osasuna kudeatzeko, eta osasuna enpresaren helburu estrategikoa eta etorkizunari aurre egiteko balio bat izan dadin.

Garatu nahi ditugun lan arloak lau dira: ariketa fisikoaren sustapena, ingurune psikosoziala, ohitura osasungarrien sustapena eta osasun laguntza.


«
Lanean pertsona osasuntsuak lortzen baditugu, emaitza enpresa osasuntsuak izango dira

ULMA TALDEKO LAN ABSENTISMOAREN ADIERAZLEA




Gaur egun ditugun absentismo mailak lanorduen 3 – 3,5 artean daude, eta LagunAro erakundeko gainerako kooperatiben batez bestekoaren azpitik gaude.

ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN DIAGNOSTIKOAK



ULMAko Aldi Baterako Ezintasunaren diagnostikoei dagokienez, gaixotasun kardiobaskularren, arazo mentalen eta neoplasiaren ondoriozko patologiak portzentaje txikia dira gainerako diagnostikoekin alderatuta.



Aldi Baterako Ezintasun prozesuen iraupenari dagokionez, patologia osteomuskularrak iraupen osoaren %30 lirateke.

ULMA Taldeko bestelako talentuak

Taldeko langileek eta bazkideek beren ibilbide profesionala eta eskakizun handiko zaletasunak bateratzen dituzte, erakutsiz talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla.



Hemen denetik dugu,
ez zaigu ezer falta.
Honelako ekimenak
bizitzarako ikasbideak dira

Amaia Ugarte,
ULMA Constructioneko kalitateko teknikaria

Begirada besteengan jarrita

Amaia Ugarte, ULMA Constructioneko bazkidea

Hainbat herrialdeetan, esaterako, Haitin edo Dominikar Errepublikan lankidetzako proiektuak garatzea ahalbidetzen duten ekimen solidarioetan laguntzen du.

Amaia Ugarterentzat hurbil egon gaitezke, urrutian dagoena bistatik galdu gabe. Horregatik, hainbat ekimen solidariotan parte hartzen du, Oñatitik irten gabe beste herrialde batzuetan bizi direnei bizitza pixka bat errazago egiteko asmoarekin, besteak beste, Dominikar Errepublika, Haiti, Kolonbia eta Beninen bizi direnei.

Amaiak ULMA Constructioneko kalitate departamentuan lan egiteaz gain, bizilagunak sentsibilizatzeko hainbat ekintza antolatzen parte hartzen du, Oñatiko Unitate Pastoraleko Misio Taldeko kideak dauden lekuetan garapen proiektuak aurrera eramateko behar den dirua biltzeko.

Amaiaren inplikazioarekin egin diren ekimenetako batzuk afari solidarioak, inauterietako txokolatadak, Gabonetako

eskarietako mahaiak eta antzerki ikuskizunak dira eta horiei esker, proiektuak aurrera eramateko beharrezko baliabideak eskuratu ahal izan dira, hala nola, Kolonbian harrera etxe bat eraikitzea, Dominikar Errepublikan etxebizitzak egitea eta Haitin anbulatorio bat sortzea.

Ekimen horiek guztiak Gipuzkoako herriko misiolariekin elkarlanean egiten dira. *"Itzela da jendearen erantzuna. Herrian ezagunak gara. Afari solidarioetan une horretan Oñatin dauden misiolariak gonbidatzen ditugu, beraien bizipenak eta proiektua nola dagoen kontatzeko"*, zehaztu du Ugartek.

Ekimen jakin baterako, gutxi gorabehera bi urtetan aritzen dira dirua biltzen. Denbora tarte hori igaro eta gero, bildutako dirua transferitzen dute, eta beste ekimen batean zentratzen dira. Bildutako diruarekin ez da proiektu osoa estaltzen, baina une jakinetako premiak ordaintzea ahalbidetzen duen koltxoia da.

"Une honetan bukatutzat eman dugu Haitin ikastetxe bat eraikitzeko proiektua eta beste bat jarriko dugu martxan, seguruenik Beninen", gehitu du Amaiak.

Amaiaren iritziz, honelako jarduerak positiboak dira, *"gauzen beste ikuspegi bat ematen dizute eta"*. *"Hemen denetik dugu, ez zaigu ezer falta. Honelako ekimenak bizitzarako ikasbideak dira"*, gehitu du.

Bere misioaren mamia Oñatin zentratzen da, baina behin hiru aste eman zituen Dominikar Errepublikan bertan garatzen ari zen proiektua eta herrialde horretako errealitatea ezagutzeko.

Esperientzia horri esker, kanpoan lanean diharduten kooperante horiek guztiek irakatsi diotena bere egin du: *"gauzak ez dira oparitu behar"*. Helburua da ekintza sozialaren onuradunak inplikatzeko eta mundua denontzako etxea bihurtzea.



Artea
ez da saiatzen
artistak sortzen,
pertsonak sortzen
saiatzen da

Jon Jiménez,
ULMA Orga Jasotzailetako langilea

Zoriontasuna konkistatzea sudur gorri batekin

Jon Jimenez, ULMA Orga Jasotzailetako langilea

Ekimen solidario batean parte hartzen du pailazo gisa eta horri esker haurren begirada xaloa berreskuratu ahal du. Mantentze lanetako teknikaria ExpressYourClown taldeko kidea da, ekintza sozialen bitartez haurrei eta helduei irribarre bat atera nahi dien elkarteko kidea, alegia.

"Niri clownak gauzei garrantzia kentzen lagundu dit. Nire buruari huts egiten uzten laguntzen dit, pailazoaren ikuspegitik HUTS EGITEAK EZ BAITIRA EXISTITZEN; gauzak egiteko eta konpontzeko modu desberdinak eta ez ohikoak dira (agian zentzugabeak)", hala definitu du Jon Jimenezek, ULMA Orgak negozioko langileak, bera modu desberdinean eta ez ohikoan (agian modu zentzugabe) parte deneko ExpressYourClown (Adierazi zure pailazoa) taldeari esker esperimendu duen barne iraultza txikia.

Mantentze lanetako langile hau Gasteizen clown ikastaroak egiten hasi zenean gertatu zen honen guztiaren hasiera, eta pailazokeriaz pailazokeria erabaki zuen, beste lankide batzuekin batera, magia hori transmitituko zuen ekimena orkestratzea.

"Ikusten nuen betetzen ninduela, dinamikatik ateratzen zinen eta berriro haur baten antzera jolasten zinen, inork kritikatu gabe", ziurtatu du Jonek; berak dioenez, prestakuntza prozesu horretan sortu zen inpultsu artistiko horri ikuspegi soziala emango liokeen talde edo elkarteren bat antolatzeko ideia.

Modu espontaneo horretan jaio zen ExpressYourClown ekimena, irri egiteko premia gehien dutenei irribarreak ateratzeko asmoz ekintza solidarioak antolatzen dituen pailazo talde bat.

Oso arlo desberdinetatik, esaterako, psikologiatik, kazetaritazatik, ostalaritazatik edo eraikuntzatik etorritako hogei bat pertsonak osatuta, elkarte honek Ospitaleko Pailazoa jardueraren modukoak programatzen ditu.

Euskal hiriburuko Txagorritxuko Ospitaleko pediatria plantara joan, ospitaleratuta dauden haurrak bisitatu eta minutu batzuetan ospitaleko gelak fantasiako unibertso bat bihurtzen dute, berez, beraiek antolatzen duten ekimenik "azpimarragarriena eta pozgarriena" da, Jonen iritziz.

Jonentzat funtsezkoa da jarduera honek bere bizitzan duen inpaktua: *"Niri clownak bizitzaren ikuspegi xaloa ematen dit. Arazo bat eduki, arazoari buelta eman eta irribarre bat ateratzeko aukera"*.

Gainera, azpimarratzen du jarduera honek bere lanbideari egiten dion ekarpena. *"Zerbitzu teknikoan lan egiten dudanez, behartuta ikusten naiz planak aldatzera eta baliabideak ateratzera. Antzekotasun garbia dago beti istilutan sartuta dagoen eta bere irudimenez baliatuta konponbidea, konponbiderik ergelena eta eraginkorrena ere, bilatzen duen pailazoarekin"*.

ExpressYourClown ez da gelditzen eta ekimen anbiziotsua prestatzen ari



da pailazoaren artea Euskaditik kanpora zabaltzeko.

Guatemala Express proiektua da. Abuztuan, bi astez, Guatemala Santiago de Atitlaneko udalerriko ikasle, irakasle eta gurasoekin egotea da, talde dinamikak egiteko.

Helburua da arte eszenikoen hezte ahalmena eta ahalmen pedagogikoa transmititzea, baina emozioak transmititzeko eta komunikazioa hobetzeko tresna gisa duen balioa ere bai.

"Artea ez da saiatzen artistak sortzen, pertsonak sortzen saiatzen da", esan du Jonek bukatzeko.



Begira OnLine, ULMAren azken orduko albisteak webgunean eta zure smartphonean



BEGIRA Online da ULMAren gaineko informazio berrituena ahalik eta arinen eta azkarren eskuratzeko aukera ematen dizu web plataformak. BEGIRA Online informazioaren erreferentzia da ULMAN.

Plataforma honetan aurkitu ditzakezu, besteak beste, taldearen eta negozioen erreportajeak eta albisteak, BEGIRA aldizkariaren hemeroteca, urteko txostenak edo ULMAren eguneroko protagonista batzuei egindako elkarrizketak; izan ere, BEGIRA, ULMAren informazioaren erreferentziako plataformak izateaz gain, langileek adierazteko eta bere hondar aletxoa jartzeko lekua ere izan nahi du.

Hori dena, hainbat ataletan banatuta, nabigazioa erabat erraza eta intuitiboa izan dadin. Atal horien artean hauek aurkitu ditzakegu:

Gaurkotasuna. Atal honetan ULMA Taldearen eta bere negozioen gaineko gaurkotasuneko gaiak kontsultatu ditzakegu. Azken orduko albisteak.

Erreportajeak. Atal honetan hurbiletik ezagutu ditzakezu, besteak beste, ULMAko langileak,

negozioek parte hartzen duteneko proiektu ugariak, eta ULMAk eta Fundazioak antolatzen dituzten jarduerak.

Elkarrizketak. Atalaren izenak dioenez, bertan aurkituko ditugu ULMAko eremu guztietako pertsona ezagunei egindako elkarrizketak.

Editoriala. Atal honetan, ULMA Taldeko zuzendari nagusiak dauka batuta. Noizean behin, bere editorialak ikusteko aukera izango dugu.

Hemeroteca. Atal honetan BEGIRA aldizkariaren zerbaki guztiak ikusi eta deskargatu ditzakegu pdf formatuan.

Atal horietaz gain, webgunearan eskuineko aldetik eduki gehigarrietara sartu gaitezke, esaterako, Taldearen Urteko Txostena, iradokizunak eta negozioen

webgunearako estekak. Eta hori gutxi balitz, informazio guztia hiru hizkuntzatan dago eskuragarri: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Gehiago eskatu daiteke?

Bukatzeko, plataformatik gu gaudeneko sare sozial guztietara sartu daiteke zuzenean, eta aktiboki parte hartu dezakegu ULMArekin, eta bere marka irudi digitala indartu.

BEGIRA Online edozein nabigatzailetan dago eskuragarri, dela zure PCn dela zure Smartphonean; beraz, aprobetxatu aukera hori eta jakin, ahalik eta azkarren, zer gertatzen den ULMAN egunero.

Ez itxaron gehiago eta sartu ULMAren unibertsioan BEGIRA Online bidez, zure enpresan gertatzen denaren gaineko informazio eguneratua emango dizun ataria baita.

Ezagutzen duzu BEGIRA online? Plataformak hau erabiltzen duzu ULMAren azken berriak ezagutzeko edo beste tresna batzuk erabiltzen dituzu?



MONTSE MAROTE

ULMA Conveyor Components

"Plataformak ezagutzen dut baina egia esan, ez dut askorik erabiltzen. Lanetik irteten naizenean deskonektatzen saiatzen naiz. Aldizkari fisikoa nahiago dut, etxean jaso eta noizean behin gauza batzuk irakurri".

Paperezko aldizkaria nahiago dut



IÑAKI IDIGORAS

ULMA Embedded

"Egia esan BEGIRA fisikoa ez dut asko estimatzen. Dena den, BEGIRARI dagokionez (bai online eta baita aldizkaria), arrakasta komertzialak bakarrik erakusten diren informazio kanala dela iruditzen zait. ULMA Gara lemparen pean, eta balore kooperatiboetan oinarrituta, barne antolamendu, kezka eta gatazkak plazaratuko dituen erreminta bat izan beharko luke. ULMAko edozein langilek, dela bazkide, zuzendari, garraiolari, kontratatu... nahi duenean eta nahi duen gaiaren inguruan ekarpenak egingo dituen plataformak kolaboratiboa, elkarlanekoa izan beharko litzake. Motz esanda, norabide bakarrekoa baino, sarean jositako informazio plataformak izatea botatzen dut faltan".

Norabide bakarrekoko plataformak izan beharrean, BEGIRAK kolaboratiboa beharko luke izan



EDURNE UNZUETA

ULMA Handling

"Plataformak egokia iruditzen zait komunikazio bide bezala. Biak ditut gustuko, bai online formatua eta baita paperezkoa. Online plataforman azkartasuna da baloratzen dudana eta aldizkari fisikoan aldiz, etxean lasai irakurtzeko aukera. Hala ere, pertsonalki uste dut promozioa falta zaiola online plataformari".

Onlineko bertsioaren azkartasuna eta paperezkoaren erosotasuna ditut gustuko



ULMA, urruntasunetik

Mugimendu kooperatiboa oro har, eta ULMA bereziki, oso sustraiturik daukagu inguru hauetan, eta urte asko eta askoko bilakabide etengabea izan du enpresaren zein gizartearen arloan. Izan ere, ULMA eta mugimendu kooperatiboa eragile garrantzitsuenetako bi izan dira, bai Oñatin bai eskualdean, azken 50 urteetan bizi izan den aldaketan.

Hori dela eta, jabetzen gara ULMA Taldearen eta bere balioen garrantzia, eta ikuspegi kooperatiboak ematen duen mundu ikuskeraz. Talde lana, kooperazioa, gizarte garapena, parte hartzea eta lehiakortasuna: horra hor, esponentziala izan den hazkundean giltzarri izandako eta giltzarri izaten jarraituko duten balioetako batzuk, bai Oñatin bai ULMA dagoen leku guztietan.

Baina, zer irizten diote mugimendu honi ULMAren delegazioetan diharduten langileek? Zer irizti daukate mugimendu kooperatiboa horren gertutik bizi izan ez duten pertsonak?

Erreportaje batzuk plazaratzeko asmoa daukagu, zelakoa den pertsona horien pertzepzioa transmititzeko, mundu kooperatiboaz duten ikuspegia, egunerokoa lantokian bizi duten errealitatea, ULMA bezalako kooperatiba baten eta bestelako arrazoi juridikoak dituzten enpresen dauden aldeak. Eta hori guztia bazkideen eta langileen beraien ikuspegitik, lehen pertsonan kontatuta. Goazen ba!

| Sentitzen duzu ULMA desberdina dela beste enpresa batzuen aldean? Zer diferentzia ikusten duzu?

> **Juan Manuel Varela:** Enpresa bakoitzak bere izaera dauka. Eta horretan, eragin erabakigarria du zer sektoretara zuzenduta dagoen eta, batez ere, nortzuek osatzen duten enpresa. Alderik handiena, beharbada, pertsonen proiektuan duten inplikazioan dago.

> **Luis Miguel Jurado:** Jakina sentitzen dela; nire kasuan, ULMA Packagingekin lehen harremana izan nuen une beretik, lehenik Madrilgo delegazioan eta gero Oñatin. Ondoren, are gehiago sentitu nuen ULMA Hormigon Polimeron (gaur egun ULMA Architectural Solutions), hala elkarriketetan nola harrera egitean. Harrera horretan ikusten da dagoen aldea, zeren

beste enpresa batzuetan ez baitago hain definituta. SL batetik edo SA batetik etorritik gero, atentzioa ematen du enpresaren antolaketak eta pertsonen balorazioak.

| Zer dakizu mundu kooperatiboari buruz? Zertan uste duzu desberdintzen dela enpresa tradizionalagoen aldean?

> **Juan Manuel Varela:** Mugimendu kooperatibistaren historiaz eta bilakaeraz zertxobait badakit. Esango nuke diferentziarik nabarmenena negozio berri bat abiarazteko moduan dagoela beharbada, eta arazoak daudenean beste kooperatiba batzuek ematen duten laguntza.

> **Luis Miguel Jurado:** Mugimendu kooperatiboaz neukan ezagutza, ULMA sartu aurretik, Arrasateko lagun bati zor diot. Laguna kooperatiba bateko kidea zen eta atentzioa eman zidaten hark kontatzen zituen gauzak. Enpresa molde desberdina iruditu zitzaidan, nire ideiekin baterago zetorren enpresa molde bat.

Gainera, noizbehinka MONDRAGON Korporazioari buruzko gauzak irakur daitezke hedabideetan, eredu nola azterten den mundu guztian, etab. Halako gauzek zer pentsatua ematen dute. Dauden diferentzietan handiena, kooperatibako langile eta bazkide izatea da; horrek gehiago sentitzera bultzatzen zaitu, inplikatuago egotera, non lan egiten dugun muturreraino ezagutzera. Laburbilduta, parte hartu dezakezu eta parte hartu behar duzu.

> **Elena Martin:** Enpresa berean eta helburu komun bat lortu guran lan egiten duten pertsonen arteko kooperazioa da, berez. Kooperatibetako langileek, elkarri lagunduz, enpresan dauden arazoei soluzioak topatu behar dizkiete, eta erabaki kolektiboen bitartez kooperatiba kudeatu behar dute.

Enpresa tradizionalaren aldean, kooperatibetan bazkideek helmuga eta

helburu berbera daukate eta denon onura bilatzen dute. Bazkide guztiek daukagu betebeharrak eta eskubide berberak eta badago enpresaren erabakietan aktiboki parte hartzeko aukera; hala, norbera inplikatuago eta arduratsuago sentitzen da enpresan. Aldiz, enpresa tradizionalan aukera hori askoz ere txikiagoa da, eta, ondorioz, motibazioa eta inplikazioa murriztagoak dira. Gainera, enpresa kooperatiboan, soberakina bazkideei itzul dakieke; enpresa tradizionalan, berriz, soberakina inbertsiogileen esku dago eta jabeak baino ez du horren gainean erabakitzen.

| Nola bizi duzu kooperatibismoa urruntasunetik? Zein da zure irudipen orokorra?

> **Juan Manuel Varela:** Zalantza barik, inguru honetan baino askoz ere indar apalagoz. Nire ustean, kooperatibaren ideia diluituz doa urruntzearekin batera.

> **Luis Miguel Jurado:** Gai honek betidanik eman dit zer hausnartua, zeren eta hain urrun egonda, norberaren kooperatibari loturiko alderdi asko ez baitzaizkizu iristen, esaterako, ekintza sozialak, organo desberdinetan parte hartzeko aukerak, etab. Jakina, ateak zabalik daude, eta norberari dagokio, kanpoan egonda ere, inplikatzeko. Inpresio orokorra oso ona da; hala ere, nire iritziz, aurrera egin behar dugu, aspektu hau



ULMAren alderik handiena beste enpresekiko da pertsonen inplikazioa proiektuan



>> Luis Miguel Jurado, ULMA Architectural

berrikusi, izan ere, gero eta bazkide gehiago gaude egoitza zentraletik urrun.

> **Elena Martin:** Kooperatibismoa, guretzat, eredu ezezaguna da, ez baita gu bizi garen lan ingurunean gailentzen den enpresa eredu. Hala ere, behin kooperatibako kide zarenean eta kooperatiban zelan lan egiten den eta bertako ikuspegi globala zein den ulertzen duzunean, zentzualki diharduen edozein langile kooperatibistaren parekoa zarelako sentitzen duzu.

Urrun gauden arazoa da ezer gutxi dakigula kooperatibaren gainerako negozioez eta dibisioez. Baina Batzar Nagusiari, BEGIRARI eta web korporatiboari esker, ULMAtik gertuago egon gaitezke, eta, horrela, kooperatibaren enpresa errealitatearen partaide sentitzen gara.

| Zure ustean, kooperatiba beste eredu batzuk baino gertuago dago berdintasunetik, justuagoa da?

> **Juan Manuel Varela:** Ez, ni lanean ibili naizen enpresa batzuetan, askoz ere aurrerago zebiltzan baja, prestakuntza eta seme-alaben ikasketetarako laguntza kontuetan. Kanpotik etorrira, gainera, betidanik harritu nau ikusteak zer emakume gutxi dagoen zuzendaritza postuetan eta are erdi mailako arduradunen artean.

> **Luis Miguel Jurado:** Bai, horixe da hasiera-hasieratik ikusten den aspektuetako bat. Organo desberdinetan sartzeko aukera izateak ideia hori edukitzen laguntzen du. Bazkideei helarazten zaigun informazioa lagungarria zaigu iritzia emateko eta erabakiak hartzeko aukera izateko, eta horrek justuagoak egiten gaitu, eta berdintasunetik gertuago jartzen.

> **Elena Martin:** Bai, eredu kooperatibista berdintasunetik gertuago dago soldata eta



>> Elena Martin, ULMA Construction

antolaketa egiturari dagokionez. Horri esker, gizarte berdinzaleago bat eta, ondorioz, sistema sozial justuago bat garatzen da.

| Beste enpresa batzuekin alderatuta, ULMAren erabakimen handiagoa duzula sentitzen duzu?

> **Juan Manuel Varela:** Aldea ez da garrantzitsua. Nire ikuspegitik, erabakimena diluitu egiten da enpresaren tamaina handitu ahala.

> **Luis Miguel Jurado:** Bazkide bakoitzari bere botoak ematen dio erabakimena; baina horretaz gain, urteko batzarra daukagu, non, gure enpresari buruzko informazio guztia ez ezik iragana eta etorkizuna ere partekatzen baita.

> **Elena Martin:** Sozietate kooperatiboetan, erabakimena, nagusiki, bazkidearena da; beste enpresa batzuk, berriz, hierarkikoagoak dira. Erabakitzeke, hor dugu, beste tresna batzuen artean, Batzar Orokorra, bertan erabakitzen baitugu, demokratikoki, zein izango diren enpresa kudeatzeko ildo garrantzitsuenak. Ondorioz, bilkura horretan bazkideek funtsezko erabakiak hartzen dituzte; beste enpresa batzuetan, ordea, ez dago halako aukerarik.

| Enpresa eta Gizarte Erantzukizunari dagokionez (ingurumenarekin, ongizate sozialarekin eta ingurunearen garapenarekin hartzen den konpromisoa), zure ustean ULMAk gehiago egiten du beste enpresa batzuek baino?

> **Juan Manuel Varela:** Ez beti. Hori faktore askoren mende dago: kooperatiba den, SA den, SL den... edozelan ere, kooperatiba errotuago dago sortu den ingurunean.



>> Juan Manuel Varela ULMA Packaging

> **Luis Miguel Jurado:** Urrun gaudenoi, aspektu horietako asko ez zaizkigu iristen, baina zerbait sumatzen da, bai. Nire ustean, bestelako enpresa batzuek baino gehiago egiten dugu, eta hori gure batasunari, osatzen dugun taldeari zor zaio.

> **Elena Martin:** Niretzat, kooperatiba baten oinarriko printzipioak dira horiek. Kooperatiba ez den enpresa batentzat, berriz, horiek ez dira lehentasuneko aspektuak, eta batzuetan enpresatik kanpoko kontuak dira. ULMAren, pertsonak eta pertsonok lan egiten duten ingurunea funtsezkoak dira enpresarentzat. Hala, enpresaren erantzukizuna ez da mugatzen balio ekonomikoak sortzera, baizik eta, baita ere, gizarte eta ingurumen balioak sortzera.

Langile bakoitzaren erantzunetan ikusten denez, denetarik iritziak daude. Argi dagoena zera da: bide luzea dugu ibiltzeko. ULMAk bere langileekin ibili nahi du bide hori, ULMAren balio nagusia bertan diharduten kideak dira eta.



ULMA fundazioa

Sahararako eskola materialaren bilketa solidarioa: 2.000 kilo eta 242 motxila bildu ditugu!!!



ULMA Fundazioak emaitza bikainarekin eman dio bukaera Sahararako eskola materiala biltzeko kanpainari, zeina martxoan eta apirilean ULMAko kooperatiba guztietan martxan jarri baita.

Irudi honetan ikusten duzuen jaso dugun materialaren zati bat baino ez da. Material berria eta erabilia, dena baliozkoa, egun gutxitan sahararren kanpamenduak dauden Aljeriako basamortura eramateko.

Egun hauetan, Jose Antonio Urteaga ULMAko bazkide erretiratu buru duen Hermansoloña GKE (Hermansoloña solidarios de Oñati) saharar talde batekin lanean ari da jasotako materiala txukuntzeko. Materiala Oñatitik aterako den furgoneta batean eramango da egun gutxitan, zuzenean Tindufeko kanpamentuetara.

"Pentsatzen genuena baino askoz material gehiago jaso dugu, ULMA oso solidarioa da. Bidali nahi genuen furgoneta ez da nahikoa izango material guztia eramateko. Bi bidaiatan eramateko antolatuko dugu dena, eta bigarren aldiari, Tindufeko kanpamentuetatik urrunago dagoen Dagla probintziara joango gara, hain zuzen ere, Oñatirekin senidetuta dagoen Gleibat El Fula herrira. Herri hau 200km urrunago dago, baina asko gustatuko litzaidake hara ere zerbait eramatea". Jose Antonio Urteagaren hitzak dira, Hermansoloñaren biltegian materiala sailkatzen ari zen bitartean.

Batez ere motxilak eskatzen genituen, akordatzen zarete? Oso pozgarria da komunikatzea guztira 242 motxila bildu ditugula! ULMAko langileen kolektiboa lankidetzarako prestasun handikoa dela

esan dezakegu eta emaitzak erakusten du oso solidarioa dela. Eta, elkartasun hori ez da ULMAko langileengan bakarrik geratzen, ULMA lanean ari diren kanpoko kontratek ere oso eskuzabal parte hartu baitute kanpaina honetan.

Maiatzaren 24an irten zen gure furgoneta, toperaino kargatuta, Tinduferruntz. Eta ekainaren 6an materiala banatzen hasi zen, hango umeak ikusten ditugu pozik, bere motxila eskuetan. Gure ekarpenak merezi izan du, badago han gure laguntza.

Tindufeko kanpamenduko eskolan zuen materialak erabiliko dituzten umeen izenean, ULMA Fundazioak **bihotz-bihotzez eskerrak** ematen dizkizue zuen adeitasun eta eskuzabaltasunarengatik.

Eta orain, uztailaren 15a arte: elikagaien jasotze solidarioa Esnea da gehien behar dutena!



Oraindik garaiz zaude zure elkartasuna erakusteko.

Uztailaren 15era arte elikagaiak entregatu ditzakezu, ULMAko negozio guztietan jasotzeko prestatu ditugun gunetan.

Jasotzen dugun guztia Elikagaien Bankura eramango dugu. Handik inguruko udalerrietan eta Caritasen banatzen dute. Udalak arduratzen dira gure ingurunean premiarik handiena duten familiei helarazteaz. Eta Caritasek bere jantoki sozialetan erabiliko ditu.

Orain premiak oso hurbil daude! Zure laguntza hementxe geratzen da.

Eta hauek dira gehienbat eskatzen dizkiguten elikagaiak: **esnea, olioak, arrain kontserbak, barazki kontserbak eta lekale kontserbak.**

Mila esker parte hartzeagatik!



Haurrentzako tailerrak udako arratsaldeetarako



Ekaineko arratsaldeetan, arratsaldeko 2etatik 6etara, gurasoen lan ordutegiarekin bat eginda, ULMA Fundazioak Haurrentzako Tailerrak antolatu ditu, eta neska-mutikoen naturari lotutako gaiak ikasi ahal izan dituzte.

46 hurrek osatu dute taldea, 4 begiraleren laguntzarekin, eta benetan disfrutatu dute egunotan, eskulanak eginez, esperimenduak, jolas eginez eta inguruan dugun natura zaintzearen garrantzia ikasiz.

Ekintza horrekin, ULMA Fundazioak gure langileentzat oso garrantzitsua den

gai batean lagundu nahi izan du, hau da, lan eta famili kontziliazioan. Egun hauetan dagoeneko arratsaldez eskolarik egoten ez denez, gurasoek arazo txiki bat izan ohi dute, eta gu horretan laguntzen saiatu gara, egun gutxi batzuek baino ez bada ere.

Azken egunean, joan den ekainaren 30ean, amaierako jaia antolatu genuen tailerretan parte hartu duten hurrekin zein lore bat bidaliz ere parte hartu duten ULMAko neska-mutikoen, begiraleekin eta senideekin. Hemen ikusi dezakezue famili argazkia.

Jaiari Madi izan genuen, Ganbara ipuinak ataleko kontu kontalaria, eta lore baten ipuina kontatu zigun. Eta ondoren detailtxo bana banatu genien bertan ziren haur guztiei.

Lehendabiziko aldia da ULMA Fundazioak haurrentzako tailer hauek antolatzen dituen, eta orain neska-mutikoen eta gurasoen balorazioa ikusi behar dugu, etorkizunean hobetzeko eta ume txikiak dituzten gure langileei laguntza eskaintzen jarraitzeko.

Joango zinateke Hondurasera GKE batekin?



ULMA Fundazioa pertsona boluntario baten bila dabil, elkartasunaren deiar erantzunez Hondurasera joateko, Zarauzko ACOES Honduras GKEarekin (Lankidetzeta eta Ahalegina Elkartea), zeinarekin ULMA

Fundazioa hainbat urtetik hona ari den lanean.


Zure bizitzako hilabete bat Hondurasen zure laguntza behar duten pertsonen eskaintzera animatzen zara?

Kontua bertara joatea da, zuk egiten dakizun horretan laguntzea; laguntza oro da ongi etorria. Are gehiago, ez baduzu espezialitate jakin bat, berdin-berdin duzu erakusteko aukera: kooperazioa zer den erakutsi diezaiekezu, talde lana, laguntzen erakutsi, hango gazteak babestu, edo,

besterik gabe, hurrekin jolastu edo abesti bat erakutsi.

GKEak berak azaldu digunez: *"Maitasuna behar duten haur eta gazteak dira, kasu egiten zaiela sentitzeko beharra dute. Ia-ia egun batzuek familiaren ordeztar bezala da".*

Idea gustuko baduzu, oso-oso gustuko baduzu, bidali mezu bat ulmafundazioa@ulma.com helbidera edo deitu telefonoz 943 250 300 zenbakira, eta hitz egingo dugu.



ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;

Beti bezala, iradokizunetarako Postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko;

ULMA Taldea. Departamentu Zentralak.
Garagaltza Auzoa 51 - 22 p.k.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref. Begira. Emaila: begira@ulma.com

ERRETIROAK: 2016ko maiatzak 1 – abuztuak 31

Eskerrik asko denoi eta ondo pasa!

Zorionak

Patxi
Barrena Arregi

Mariano
Altube Guridi

Mertxe
Aguirre Azcona

Andoni
Altuna Uribe

Anton
Azpiazu Elizondo

Jesús M^a
Ormaetxea Lasaga

M^a Asunción
Ugarte Iria

Idoia
Urrutia Herrero

Luis
Olariaga Jauregialzo